

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

5386

EBAZPENA, 2020ko azaroaren 11koa, Europar Gaietarako zuzendariarena, zeinaren bidez ebazten baita Flandria eta Gales eskualde estrategikoekin 2020-2021ean lankidetzak teknikoak egiteko laguntzen deialdia.

Martxoaren 26ko 47/2019 Dekretuaren bidez, Bazkide Estrategikoen Sareko kanpoko eskualdeekin lankidetzak teknikoan aritzeko proiektuetarako laguntzak arautu ziren.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiaren 2020ko ekainaren 17ko Ebazpenaren bidez, Flandria eta Gales eskualde estrategikoekin 2020-2021ean lankidetzak teknikoak egiteko laguntzen deialdia iragarri zen.

Deialdiari buruzko ebazpen horren 7. artikuluan izendatutako ebaluazio-batzordeak dirulaguntzak emateko proposamena egin du. Proposamen hori ikusirik, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Flandria eta Gales eskualde estrategikoekin 2020-2021ean lankidetzak teknikoak egiteko laguntzak eranskineko zerrendan ageri diren erakundeei adjudikatzea. Eranskin horretan bertan zehazten da laguntzen zenbatekoa.

Bigarrena.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango da Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian, hilabete epean, honako hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatzen baitu urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 112. artikuluan eta hurrengoetan.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroaren 11.

Europar Gaietarako zuzendaria,
MIKEL ANTON ZARRAGOITIA.

ERANSKINA

ERAKUNDE ADJUDIKAZIODUNAK

Zk.	Erakundea	Proiektuaren izena	Dirulaguntza (eurotan)
1	Innobasque	Flandria- Basque District of Culture and Creativity (Basque DCC).	5.000
2	Isifuera, S.L.	Gales- Plataforma digital de producción, gestión e interacción de artistas.	3.300
3	Fundación Instituto Gerontológico Matia-Ingema	Gales- Grupo Internacional de Investigación Colaborativa en envejecimiento.	4.914,90
4	Euskampus Fundazioa	Gales- Transferencia de buenas prácticas e intercambio de conocimientos con Universidad de Cardiff.	5.000
5	Basque Health Cluster	Gales- Euskadi Bio-Health ecosystems meetings.	5.000
6	Universidad de la Iglesia De Deusto	Flandria- Proyecto de Cooperación en Prevención del Deterioro Cognitivo y Funcional en Poblaciones Diana.	5.000